# ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

## Hutsuniak Bete

1. Butakan etzindda hankia .................... egin xat
2. Orduan mutikuak .................... faten gintzuan kriau.
3. Han hasi xakun zarata batian, bere .................... urtenda.
4. Launian hainbestian moldau zan, baiña aldapak agertu ziranian .................... egin eben
5. Bixar goiz iratzarri biharra dakot eta ni banoia ....................

Aukerak: onetik / txinddurrittu / meko / bardinberora / tripa truke

## Beste era batera esan

1. Aginddutakua ez bete: ..........................................
2. Gaizki pasau; larri ibilli: ..........................................
3. Amorruaz hazka egin: ..........................................
4. Kirtenkerixak esan: ..........................................
5. Bizkarrezur barrenian golpe bat hartu: ..........................................

Aukerak: hazkapuzka egin / hauspokerixak / ipurtxuntxurrekua / berbia jan / gorrixak ikusi

## Kurtzegramia

**DEFINIZIÑUAK**

1. Umien lehenengo hagintxuak.
2. Gehixenetan. Normalian.
3. Zurrunkia.
4. Garrasixa.
5. Arretia. Fundamentua.
6. Ez euririk, ez edurrik, ez lanborik...




## Sinonimuak

1. Trebia
2. Motela, txepela
3. Zuri-zurixa ez
4. Edur-jausixa
5. Hotz antza

A. Beluna
B. Edurramilla
C. Artetsua
D. Hozkirrixa
E. Babaloria

## Esaera Zaharrak osotu

1. Abenduko eguna, ..........................................
2. Alperraren golpia, ..........................................
3. Bizitza aldiz, astoz edo ..........................
4. Gaztiak baleki eta zaharrak ..........................................
5. Mariatza euritsu, urtia ..................................

Aukerak: zaldiz / ogitsu / segurua / baleuko / argittu orduko illuna

## OÑATIERAZ EGOGI

### 'Leikedotsut'

Azkenaldixan gero eta gehixago entzuten dira, batez be gaztien artian, era honetako aditz formak: leikeda, leikedostazu, leikegu, leikedotsut...

Adibidez: *"Emun leikedostazu horko paper hori?"; "Hori di-da batian egin leikeda"; "Zeiñek lagundu leikedosta hau egitten?"*

Forma horrein ordez gure arbasuakandik beste honeik jaso dittugu:

*-Emungo dostazu horko paper hori?*
*-Hori di-dau baten egingo dot.*
*-Hori aguro egin neike.*
*-Zeiñek lagundu ahal dost hau egitten?*
*-Mesede hau egitterik badakozu? Bai, badakot egittia.*

**ERANTZUNAK**

**Hutsuniak**
1. txinddurrittu / 2. tripa truke / 3. onetik / 4. meko / 5. bardinberora (uhera)

**Beste modu batera esabn**
1. berbia jan / 2. gorrixak ikusi / 3. hazkapuzka egin / 4. hauspokerixak / 5. ipurtxuntxurrekua

**Kurtzegramia**
1. txatxur / 2. aixkomente / 3. lokarrasa / 4. garramistu / 5. ganora / 6. aterri

**Sinonimuak**
1-C / 2-E / 3-A /4-B / 5-D

**Esaera Zaharrak**
1. argittu orduko illuna / 2. segurua / 3. zaldiz / 4. baleuko / 5. ogitsu

# ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

## Dagokixon aditza jarri

1. Nere gurasuairi lehen sarixa tokau .......................... San Migel Txikittako errifan.
2. Aizu, seme, aittak eta bixok Mondraguera fan biharra dakogu. Eruango ..................... automobillian?
3. Mutiko honek ahalegiña egingo ........................ aidian etarako leuke kursua.
4. Aizu, Xabier, jakin leike atzo zer esan .................... zure arrebiari holako bekozkua jarteko?
5. Ezta hain zailla. Zeuk be egin ........................... ariketa hori.

Aukerak: baleu / zotsan / zeike / xate / gaizu

## Beste era batera esan

1. Bape lorik ez egin: .........................................
2. Aurpegi txarra ifiñi: ........................................
3. Esperantza barik egon: ............................................
4. Agopeian barriketan jardutia, gaizki esaka-edo: ...................................................
5. Esan dan zerbait borobilddu edo inddarketako berbia: ................................................

Aukerak: etsitta egon / marmaxika edo murmuxetan ibilli / horregatio! / begirik ez batu / bekozkua ifiñi

## Kurtzegramia

**DEFINIZIÑUAK**

1. Eskulekua; ekintzetan edo berbetan baldarra, takarra.
2. Aurpegixaren alboko aldia, surraren eta belarrixaren artian daguena, begi azpittik okotzeraiño aillegaitten dana.
3. Uhetik jaiki ondoren batzuetan izaten dan umore txarra.
4. Betik jenixo txarrarekin dabillena.
5. Kili-kolo. Dilin-dolonka.
6. Heldu, oratu....




## Sinonimuak

| | |
|---|---|
| 1. Tankeria | A. Erana |
| 2. Zornia | B. Lotxua |
| 3. Lekaixua | C. Itxuria |
| 4. Zurruta | D. Pusunixia |
| 5. Lokamusa | E. Irrintzixa |

## Esaera Zaharrak osotu

1. Gaztiak ordu segururik ez, zaharrak ......................................................
2. Egi hutsa, .........................................
3. Amen! Zu hor eta .......................................!
4. Umiak hazi, nekiak ......................................
5. Neure etxe pobria, Burgos dana .................................

Aukerak: hasi / eskapurik ez / baiño hobia / urrixa / ni hemen

## OÑATIERAZ EGOGI

### 'Xaten-Notsan'

Oso zabalduta dago indikatiboko nor-nori-nork lehenaldixan 'xaten' aditz laguntzaillia ebaltia 'notsan' ebali ordez. Ikusi dagigun adibide batzuk:

** Esan xaten fateko eta enostan kasurik egin.*
** Emun xaten diruarekin fan zan errekaduak egittera.*
** Ekarri xaten alkondaria egunero janzten dau.*

Aditz forma horrein ordez, beste honeik ebali biharko gittuke:

*Esan notsan fateko eta enostan kasurik egin.*
*Emun notsan diruarekin fan zan errekaduak egittera.*
*Ekarri notsan alkondaria egunero janzten dau.*

**Orduan:**
*Gaur esan xat, baina atzo esan notsan.*
*Gaur emun xat, baiña atzo emun notsan.*
*Gaur ekarri xat, baiña atzo ekarri notsan.*

**ERANTZUNAK**

**Dagokixon aditza jarri**
1. xate / 2. gaizu / 3. baleu / 4. zotsan / 5. zeike

**Beste modu batera esabn**
1. begirik ez batu
2. bekozkua ifiñi
3. etsitta egon
4. marmaxika edo murmuxetan ibilli
5. horregatio!

**Kurtzegramia**
1. kirten / 2. matrailla
3. loerre / 4. ipurterre
5. loka / 6. obatu

**Sinonimuak**
1-C / 2-D / 3-E /4-A / 5-B

**Esaera Zaharrak**
1. eskapurik ez / 2. urrixa / 3. ni hemen / 4. hasi / 5. baiño hobia

# ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

## Dagokixon aditza jarri

1. Bazkarixa gertu dago. Etorri ......................... hotzittu baiño lehen.
2. Nun afaldu leiken preguntau dostai eta erantzun .................... Arantzazura fateko.
3. Zer ........................ egunkarixak atzoko ezbiharraren gaiñian?
4. Nere aurrian balego esango .................... gauzak garbi
5. Saiatu ezkero, zeu be izan ........................... musikari ona.

Aukerak: zeinke / dixue / dostet / zatezai / noskio

## Beste era batera esan

1. Inbirixia euki: .........................................
2. Berba egitteko (edo bersuetarako) samurtasuna euki: .........................................
3. Lehen baiño hobeto; askoz hobeto: ............................................
4. Bestaldera begiratu: ...................................................
5. Ziurtasun edo zihaztasun barik berba egin: ................................................

Aukerak: Etorrixa euki / Igualeko / Tripajatiak euki / Aleitzira esan / Ezikusi egin

## Kurtzegramia

**DEFINIZIÑUAK**

1. Betazal ertzetako uliak.
2. Ebagi luzia eta sakona egin, zartiau.
3. Ustelketan-edo, hasi diran gai organikuen azalian urteten dauen geruzia, edo, orban zurixkak eta harruak, ondduak eraginddakuak.
4. Bero kiskalgarrixa, jota izten zauena.
5. Zerbaitteri darixon zera.
6. Zahartzaruan-edo ulia zuriketia.




## Sinonimuak

1. Geldigorra
2. Aiñubeia
3. Iragako/iragoko
4. Jareiña
5. Mirriña

A. Pasautako urtiak
B. Mehia, eskasa
C. Geldik egoten eztana
D. Laiotza; leku illuna, umela.
E. Eginbiharrak samur izten dittuena.

## Esaera Zaharrak osotu

1. Bakoitzak bere astuari .......................................................
2. Etxeko hautsak, etxian .........................................
3. Otsua aittatu, otsua .......................................
4. Sutan probaitten da .......................................
5. Eza ................................. da.

Aukerak: agertu / eltzia / bidian / arre / astinddu

## EUSKERAZ EGOGI

### 'Ze ondo pasau zara, e!'

Orain hurrunguan antzerki saixo baten akaberan, horixe esan otsan ama batek bere umiari. Ikusten danez ***pasau*** aditzaren laguntzaillia ezeben egogi ebali. Aditz hau era askotara esaten da eta irrist egitteko aukera asko emuten dauenez, ikusi degigun arazo haundixenak eragitten doskueiñak:

**NOR** (zentzu inpertsonalian, harriduria adierazteko, eta nundik eta nora galderai erantzutian darabilgu)

*-Gure akuerduan gauza asko **pasau dira**, holakuak eta haundixaguak be bai.*

*-Nundik **pasaitten da** argindar linea?*

***-Pasau** egin haiz, e!*

**NOR-NORK** (Objetua ageri danian eta `nolatasuna´ adierazten dauein aditzonduekin (ondo, gaizki, ederki, gustura ...) darabilgu)

*-Lehenengo pruebia **pasau dot**.*

*-Nundik **pasau bihar daue** argindar linea?*

*-Ze ondo **pasau dozuen**, e!*

**ERANTZUNAK**

**Dagokixon aditza jarri**

1. zatezai / 2. dostet / 3. dixue / 4. noskio / 5. zeinke

**Beste modu batera esan**

1. Tripajatiak euki
2. Etorrixa euki
3. Igualeko
4. Ezikusixa egin
5. Aleitzira esan / bota

**Kurtzegramia**

1. Betulak / 2. Brintzaatu
3. Lizuna / 4. Galdia
5. Jarixua / 6. Urdindda

**Sinonimuak**

1-C / 2-D / 3-A /4-E / 5-B

**Esaera Zaharrak**

1. arre / 2. astinddu / 3. agertu / 4. eltzia / 5. bidian

# ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

## Zer xabillagu/xabiñagu?



Julen: Zer, bahator gurekin Lekeitiora, antzar egunera?
Dany: Baxakuat asmua!
Julen: Ba, "burdixa" Manuk ifiñi bihar xok eta, orduan, hirekin lau izango gaittuk: Manu, Fredy eta gu bixok.
Dany: Ondo xagok. Zer ordutan urtengo xuagu?
Julen: Goizeko 10:00etan Txaketueneko bidekurtzian.
Dany: Konforme, han egongo nauk!
Julen: Ordurako egon hadi, e! Bestela, ***hanka egingo dostagu***, heuk ikusi!

## Goguan hartzekuak

**ASTEKO EGUNEN IZENAK**

**Astelehen, martizen, eguazten, eguen, egubakoitz, zapatu, domeka** mugabagian. **Astelehena, martizena, eguaztena, eguena, egubakoitza, zapatua** eta **domekia** mugatu singularrian. Adb.:

*A.- Zer egun da gaur?*
*B.- Gaur, **astelehena** egun danian!*
*A.- Bixar, orduan, **martizena**; etzi **eguaztena** eta etzilimo **eguena**. Eta atzo zer egun izan zan?*
*B.- Atzo, **domekia**.*
*A.- Hereiñegun, orduan, **zapatua** eta hereiñeguntxo, **egubakoitza**. Eta noiz urteten dozue, ba, bakaziñotan?*
*B.- **Bixar zortzi!** Eta zuek?*
*A.- **Gaur hamabost!***
*B.- Orduan, **eguen illunkaran** pintxo-poteuan ikusiko gara.*

## Hutsuniak bete

1. Hau etxat gustaitten; bestiori be ez... Eztau bapebe jaten. Oso ............................ da.
2. Eruan egizu poltsia kontuz, bestela fruta dana ......................... egingo da-ta.
3. Burrukia egon da bart kalian. Ukabilkada batekin ......................... apurtu xau batak bestiari.
4. Bakaziñotan urten bihar dogula-ta, gure umiak .......................... dabiltz.
5. Eztozu pakerik emungo gura dozuna egin arte. .............................. zara gero!

Aukerak: Aidaatuta / Turtikiñia / Maspilddu / Kiliña / Matraillazurra

## Beste modu batera esan

1. Dudan egon ......................................................
2. Ardura barik ibilli .........................................
3. Lotsabagia .......................................
4. Hotza igarten hasi (destenplau) .......................................
5. Odolbagia ...................................

Aukerak: giza-narrua / ezbaiko egon / mengela / hozkilddu / firin-faran ibilli

### EUSKERAZ EGOGI

## (*) 'Zapatillak jantzi naiz. Mosua pinttau naiz'

Gaztelaniazko esaldi bihurkari (erreflexibo) batzuk euskeraz NOR erako aditzakin egitten dira. Adibidez:

- *Me he vestido: jantzi naiz.*
- *Me he pintado: pinttau naiz.*
- *Me he ensuciado: zikinddu naiz.*

Baiña argi! Esaldi horreik osagarri zuzena (konplemento direktua) dakoiñian, aditzak NOR-NORK erakua izan bihar dau, nahiz eta gaztelaniaz aurrekuaren egittura bera izan. Adibidez:

- *Me he puesto las zapatillas: zapatillak jantzi dittut.*
- *Me he pintado la cara: mosua pinttau dot.*
- *Me he ensuciado los pantalones: frakak zikinddu dittut.*

**ERANTZUNAK**

**Hutsuniak bete**
1. kiliña / 2. maspilddu / 3. matraillazurra / 4. aidaatua / 5. turtikiñia

**Beste modu batera esan**
1. Ezbaiko egon
2. Firin-faran ibilli
3. Giza-narrua
4. Hozkilddu
5. Mengela

# ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

## Zer xabillagu/xabiñagu?



Karen: Jaixen programia ikusi don?
Bea: Baitta aukeratu be gustoko ekittaldixak!
Karen: Eta zer xagon ba, gustokua?
Bea: Ba, agorraren 20xan *Argia eguna*, 26xan *Biñakako FRONTEfemiNISta Txapelketia*, 28xan *Trikitxarangia* kalerik kale, eta gero disko fiestia Amaia Txintxurretarekin...
Karen: Egon hadi isillik! Eñonan uste guretako hainbeste gauza egongo ziranik!
Bea: Eta eztonat danak esan, zirrindaria akabera bagikua don-eta!
Karen: Bueno, bueno, bañoian agendia etara eta apuntaittera, etxonat gura bakarrik be galtzerik-eta!
Bea: Ba, gertatu hadi, aurten ***oiñetakuak urratu arte*** dantzan egin bihar xonagu -eta!
Karen: Bai horixe, aurten plazako zoruari lustria etara bihar txanagu!

## Goguan hartzekuak

### HILLABETIEN IZENAK

**Ilbaltza, otsailla, martixa, apirilla, mariatza, bagilla, garagarrilla, agustua, agorra, urrixa, zemendixa eta abendua.** (mugatu singularrian, izentaitteko modurik normalena)

**Ilbaltzian** lurra lo daguela esan leike. **Otsaillian** aratiztixak izaten dira, eta katuak, berriz, altan. **Martixan** orainddiok badaki edurra egitten, kontuz gero! **Apirillaren** azkenian hostrua haitz gaiñian. **Mariatzian** kukua etorten da, **bagillaren** azkenetan ezkutaitteko. **Garagarrillian** garixa ebagi, jo eta jasoteko garaixa dogu. **Agustuko** Andramarittarako arbixa ereitten da eta San Agustiñetik aurrera eguraldixak udazken itxuria hartzen dau. **Agorrian** Santikutzak Legazpin eta San Migelak Oñatin. **Urrixan** iria ebaten da, eta usuak be agerketan dira, itsasantzar eta oillagorrakin batera. **Zemendixan** lurra boldaatu eta garixa erein bihar da, San Andresetarako aixkomente. Eta **abenduan**, gabonak gaiñian, Gabon egun, Natibittate eta Gabon zaharrarekin.

## Hutsuniak bete

1. Nunbaitten entzun dot izen hori. Badakot horren ..........................
2. Eskulan ikusgarrixak egitten dittu. Mutiko ..................... urten dosku honek!.
3. Guazen ibilli bat egittera; hor silloian ..................... geratu barik!
4. Horeixak jo eben atzo Oñatin, eta ordu erdi inguruan eurixa ...................... egin eben..
5. Loterixia tokau xakola eta aberastu egin dala. Bai zera, ......................... dosku horrek!

Aukerak: anportuta / idolaz / artetsua / larakua sartu / entzueria /

## Beste modu batera esan

1. Ume txikiñak oiñez ibiltten hasi .................
2. Sekretuak .................
3. Harrokerixak edo agokadak esatia .......................
4. Mokadutxua (luntxa) ..........................
5. Saiatua, argixa ......................
6. Gela bat bentilau .................

Aukerak: oriau / otamena / isil-kontuak / taka-takan hasi / hauspokerixak esatia, botatia / perkatxa

## EUSKERAZ EGOGI

# (*) Atzo emun dotsuten. Atzo esan xaten...

Sarrittan entzuten dira horrelako formak indikatiboko oraiñaldiko adizkixai '-N' gehittuaz osotu diranak. Horrein ordez lehenaldiko adizkixetara jo biharko geke, gure hizkundia erabat pobretu gura ezpadogu behintzat.

Orduan:

- *Gaur **emun dotsut** eta atzo **emun notsun.***
- *Eguardixan **ekarri dot** eta hereñegun **ekarri neben**.*
- *Goizian **esan xat** eta fan zan astian **esan notsan**.*
- *Bazkalostian **ikusi nau** eta atzo illunkaran **ikusi nindduen**.*

## ERANTZUNAK

**Hutsuniak bete**
1. entzueria
2. artetsua
3. anportuta
4. idolaz
5. larakua sartu

**Beste modu batera esan**
1. Taka-takan hasi
2. Isil-kontuak
3. Hauspokerixak esatia, botatia
4. Perkatxa
5. Oriatu

# ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

## Zer xabillagu/xabiñagu?

Aitta-semiak baxagozak barriketan etxeko sukaldian, eta aittak hauxe esan txak semiari:
- *Kalian hoiala abadia ikusten badok agurtu, eta berarekin berbetan hasten haizenian esan egixok: `jaun eta berori´, `jaun eta berori´.*
Hori entzun eta gero, baxoiak mutikua beste egun batian kaletik eta, han nun ikusten dauen abadia Txurrukaneko arkupetan. Hurreratu dok eta, agurtu ondoren, 'braust' bota txak:
- *Aittak esan xostak hiri `jaun eta berori´ esateko, `jaun eta berori´.*
Abadiak hori entzun ebenian, **jo ta ma geratu zuan** (!!??), zer esan ez ekixela.



('Jo ta ma geratu' = harrituta edo txundituta geratu; harri eta zur edo zur eta lur geratu)

## Goguan hartzekuak

**FETXIA ZELA ESKRIBIU**

Fetxia eskribitteko molde honeik proposaitten dittu Euskaltzaindixak:

*Oñati, 2015eko zemendixaren 16xa.*
*Oñatin, 2015eko zemendixaren 16xan.*
*Oñati, 2015eko zemendixak 16.*

Edo, aposiziñuan:
*Gaur, zemendixak 16, lehenengo ikasgaixaren ebaluaziñua egingo dogu.*
*Bixar, zemendixak 17, esamiñen notak urtengo daue.*

Beste ebalera hau be politta eta goguan hartzekua da:
*Hil honen 8xan kaza-denporia zabalketan da eta martixaren 15ian itxiko da*
*Hillaren 10etik datorren hillaren 20ra arte neguko merkealdixak izango dira.*

## Hutsuniak bete

1. Lau lagun gara eta birendako lekua bakarrik dago. ............................ biharko dogu kanpuan zein geraketan dan erabagitteko.
2. Egun danian burruka batian! .......................... eragitten dostai ume honeik!
3. Ipar-haizia dabil eta igarten da. Eztot jertserik ekarri eta .................................. nago.
4. *Teleberri* aurkezten dauen andriaren .................................. hartzen xat neska horri.
5. Ume jaixo barri baten antzera dakotzu azala, .......................................

Aukerak: ernegau / taixua / guri-gurixa / zotz egin / hozkirrittuta /

## Beste modu batera esan

1. Ezer be ez (jakin/esan): ...............................
2. Umia nekiaz erreta edo errendiuta egon, ondo ezian egon: .................................
3. Ganora asko bagia, gizajua / Errukixa emuten dauen pertsonia: ................................
4. Lo oso ariña: .......................................
5. Leher egindda egon: ................................

Aukerak: dontsua / mankauta / erbi-lua / taka-takan hasi / tautik be ez / irrittu egon

## EUSKERAZ EGOGI

*si inbiu ...;
*si eztozu egin ezebe ...

Harriduria edo sospresia adierazten dau erderazko **si** horrek. Erderazko **¡Pero si...!** -ren balixokidia da. Ikusi degigun hori esateko dakogun modu batzuk:

*¡Si no te habia conocido! =*
*-Etzaut, baiña, ezagutu!*
*-Etzaut ezagutu, baiña!*
*-Ezagutu al zaut, ba!*
-Etzaut ezagutu-eta!

*¡Si no has hecho nada todavia! =*
*-Orainddiok ezer be eztozu egin, baiña!*
*-Orainddiok eztozu ezer be egin, ba!*
*-Ezer egin al dozu, ba!*
*-Ezer be eztozu egin-eta!*
*[...egin dda]*

*!Si nos has tocado a nosotros hacerlo! =*
*-Geuk egin bihar dogu, baiña!*
*-Geuk eztogu egin bihar, ba!*
*-Geuk egin bihar dogu-eta!*

**ERANTZUNAK**

**Hutsuniak bete**
1. Zotz egin
2. Ernegau
3. Hozkirrittuta
4. Taixua
5. Guri-gurixa

**Beste modu batera esan**
1. Tautik be ez
2. Irrittu egon
3. Dontsua
4. Erbi-lua
5. Mankauta

# ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

## Zer xabillagu/xabiñagu?



Jon: Zer Karen, lanera?
Karen: Bai, pozik gaiñera!
Jon: Nun habil, ba?
Karen: Ba, astian hiru aldiz faten nauk etxe batera, hango jiria egin eta amandria bat zainketara. Eta hik, zer?
Jon: Ba, etxakonat lanik, ordainddutakorik esan gura xonat. Goizetan eskola profesionalera faten naun eta arratsaldeetan tailler batera praktikak egittera.
Karen: Jo, orduan nere antzera, **karteria mehe samarra eukiko dok**!
Jon: **Mehia bai mehia**, baiña igual don, orainddiok astegoixenetan trago batzuk joteko lain baxakonagu bai, eta etxagon kuidadurik!
Karen: Bueno, bueno, Jon, eutsi umore horri ahal doken bittartian, eta egubakoitz gabian ikusiko gaittuk!
Jon: Bai, bai, betiko lekuan egongo gaittun.
Karen: Ordura arte, ba!

## Goguan hartzekuak

**ORDUA ZELA ESKRIBIU**

Herrikotik Batura desbardinttasun batzuk dagozenez -laruz markauta agiri diranak-, bi tabla egingo dittugu horreik ikusteko:

**Zer ordu da?**

| **Herrikuan** | **Batuan** |
|---|---|
| Ordu batak dira | Ordu bata da |
| Ordu bixak dira | Ordu biak dira |
| Hirurak dira | Hirurak dira |
| Laurak dira | Laurak dira |
| Bostak dira | Bostak dira |
| Seirak dira | Seiak dira |
| Zazpirak dira | Zazpiak dira |
| Zortzirak dira | Zortziak dira |
| Bederatzixak dira | Bederatziak dira |
| Hamarrak dira | Hamarrak dira |
| Hamaikak dira | Hamaikak dira |
| Hamabixak dira | Hamabiak dira |

Ordu batak eta laurdenak (laenak) dira
Ordu bat eta erdixak dira
Ordu batak laurden (laen) gutxi dira
Ordu batak (puntuan) dira

**Zer ordutan?**

| **Herrikuan** | **Batuan** |
|---|---|
| Ordu batetan | Ordu batean |
| Ordu bittan/bixetan | Ordu bietan |
| Hiruretan | Hiruretan |
| Lauretan | Lauretan |
| Bostetan | Bostetan |
| Seiretan | Seietan |
| Zazpiretan | Zazpietan |
| Zortziretan | Zortzietan |
| Bederatzittan/bederatzixetan | Bederatzietan |
| Hamarretan | Hamarretan |
| Hamaiketan | Hamaiketan |
| Hamabittan/hamabixetan | Hamabietan |

Ordu batak eta laurdenetan (laenetan)
Ordu bat eta erdittan
Ordu batak laurden (laen) gutxittan
Ordu batetan (puntuan)

## Esaera zaharrak osotu

1. Jokua ezta errenta, hoba .....................................................
2. Hori dok hitza, eta ez .....................................................
3. Bizi danak, .....................................................
4. Ikusi eta itsu, entzun eta ..........................................
5. Osasuna, munduko ..................................................

Aukerak: *gor egin, hilttia zor, oillaskua erreta, ondasuna, ur gaiñeko bitsa*

## EUSKERAZ EGOGI

# *Bagekigun, *zeukatzun, *geukagun, *oskuzun, *bazekitzu...

Forma pleonastikuak esaten xate holakuai eta pertsona-morfemia (*-gu* eta *-zu* batez be) aditz laguntzaillian bi aldiz sartzeruskuan sortzen dira. Lehenaldiko formak oraiñaldikuen moduan egi-ttetik dator akatsa. Ikusi degi-gun zela egin bihar diran:

**Oraiñaldixan/Lehenaldixan**

*-Baldintza badakigu* (orain)
*-Baldintza bagekixen* (lehen)

*-Esku artian ardo-zahatua dakozu* (orain)
*-Esku artian ardo-zahatua zeukan* (lehen)

*-Datorren astian eztakogu lanik* (orain)
*-Fan zan astian ezkeukan lanik* (lehen)

*-Sari ona emun doskuzu* (orain)
*-Sari ona emun zoskun* (lehen)

**Baldintzan**
*-Bazeki zer entzun doten!*
*-Bazekiei nundik nora ibilli naizen!*

**ERANTZUNAK**

**Esaera zaharra osotu**
1. oillaskua erreta
2. ur gaiñeko bitsa
3. hilttia zor
4. gor egin
5. ondasuna